

## Hezkuntza online ikasketen eta unibertsitate masterren ate ireki ekitaldiak, maiatzaren eta ekainaren

2014/04/29

2014-2015 ikasturtean eskainiko diren ikastaro zehatzen gaineko informazio pertsonalizatua emate aldera, **bi ate ireki sorta prestatu ditu MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.**

**Batetik, Hezkuntza ikasketen online** eskaintzen berri zehatza emango da maiatzaren 10ean eta 28an antolatutako aurkezpenetan. **Bestetik, "Master hilabetea"** egitarauaren barruan, unibertsitate masterren gaineko informazio osoa banatuko da maiatzaren 28ko eta ekainaren 18ko ekitaldietan. Ate ireki guztiak egingo dira Eskoriatzako campusean, eta interesatuek aldeztu aurretik eman beharko dute izena.

### Hezkuntza graduak online eskaintzaren berri, maiatzaren 10ean eta 28an

Aurrez-aurreko Hezkuntza graduak eskaintzeaz gain, MUK ematen du aukera egiteko Hezkuntza graduak eta egokitzapenak *online* modalitatean edo modu erdi-presentzialean. Ikastaro horien guztien gaineko zehaztapenak emateko, bi ate ireki egun antolatu ditu HUHEZI fakultateak. **Lehena egingo da maiatzaren 10ean, 11:00etan, bigarrena, aldiz, maiatzaren 28an, 18:00etan.**

Hiru dira, 2014-2015 ikasturtean, *online* edo modu erdi-presentzian eskainiko diren kurtsoak:

- Diplomaturatik gradurako egokitzapena.
- Hezkuntzan beste gradu bat edo beste aipamen bat.
- Hezkuntza graduak online.

Erdi presentzial diren ikastaro horien gaineko ate irekietara etorri ahal izateko, aldeztu aurretik eman beharko da izena. Horretarako, bi bide egongo dira: 943 71 41 57 telefonora deitu edo mezua idatzi [harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu) helbidera.

### Unibertsitate masterren berri, maiatzaren 28an eta ekainaren 18an

Lau unibertsitate master eskaintzen ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Horietatik hiru lotura dute hezkuntzarekin eta, laugarrena, kooperatibismoarekin.

- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet).
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM).
- Gizarte ekonomia eta enpresa kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP).

Lau master ofizial horien guztien gaineko informazioa emango da **maiatzaren 28an eta ekainaren 18an** egingo diren ekitaldietan:

Ate ireki ekitaldi biak hasiko dira **arratsaldeko 18:00etan**, Eskoriatzako campusean. Ekitaldia parte hartzeko, aldeztu aurretik eman beharko da izena hurrengo web orrian:

[www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak](http://www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak).



Online ikastaoren berri emateko, ate irekiak antolatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.